# BARREN

2000ko apirilaren 14a
VIII. urtea - 317. zkia

ELGOIBARKO ASTEKARIA

**ZENBAT BURU**
Jon Peli Uriguen

**ERREPORTAJEA**
TOLETXE tabernak ateak ireki ditu



**GEHIGARRIA**
TxikiBARREN

**KULTURA**
Arturo Andrade eskultorearekin berbetan



## Cruz Arriola:
# XX. mendeko enpresaria

"Lehenago eta orain, lanari sari edo ordain" (Esaera zaharra)




Bizkor

Zorionak Euskal Herria

amar wIta."'r urte



JON PELI URIBUEN

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Saiqu barrira

Azkenean ireki ditu ateak, azkenean ezagutu dugu `Toletxe' barrutik. Ordua zen, esango du norbaitek. Arazoak arazo, azkenean proiektua aurrera ateratzea lortu dute. Zorionak bihotz-bihotzez hori posible egin duten guztiei, benetan estimatzekoa baita elkarren arteko harremanak euskaraz izaten ahalegintzen garenoi, horrelako ingurune batek ematen digun parada.

**"lToletxe' euskaldunok gure elkar bkilzan izango dugun gune berria dela esango nuke, inor kanpoan utri gabe, noski, baina euskara posilibold diskriminatirt.**

`Toletxe' ez nuke esango taberna hutsa denik, ezta kultur etxea ere, euskaldunok gure elkar bizitzan izango dugun gune berria baizik, inor kanpoan utzi gabe, noski, baina euskara positiboki diskriminatuz.

Inaugurazio ekitaldian izan ginenok kala bete genuen, eta baita egun horretarako antolatu zituzten saioak gustura txalotu ere, baina nik mesede bat eskatu nahi nizueke bertan izan zineten guztiei: ez dadila presentzia hori egun horretara mugatu, pertsona askok egin duen lanak, benetan eskertzekoa izan denak, etorkizunean bere fruitua eman dezan guztion laguntza beharrezkoa delako, `Toletxe' euskaldunen topaleku biburtzeko, jasoko dituen ekintzen aniztasunak emango dion aberastasuna euskararentzako mesedegarri izango denaren esperantzan.

**"Toletme' moduko ekimenak mesedegarri dira dudarik gabe, hlzkunlza bat kalean, eguneroko bizilzan erabiltoen ez den heinean hiltzera kondenaturik baltago".**

Euskarak guztion laguntza behar duela gauza jakina da, eguneroko bizitzan erabiltzeko ohitura finkatzeko, naturaltasunez egiteko. `Toletxe' moduko ekimenak mesedegarri dira dudarik gabe, hizkuntza bat kalean, eguneroko bizitzan erabiltzen ez den heinean hiltzera kondenaturik baitago. Beraz, eta proiektu hau luzerako jaio delako sinesmenean, `Toletxe' n ikusiko dugu elkar hurrengo batean.

Sua piztua dago jadanik. Orain denon artean egin behar duguna garrak mantentzea da, norberak bere egurra botaz, neguko hotzak izoztu ez gaitzan.

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
'a 943 74 41 12
Publizitatea:
✆ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.lhardun.com/barren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, eta Asier Orbea
PuaLizrrxrEA Andortz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
GERENTZIA Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK Alnhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, lon Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, lon Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, lban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zublaurre,
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA lbon Arriola
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.000 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eu.sko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



ese~~1,___.

*gizarte-ekintza obra social*

DA N 0 BAT

414 GOITI
GRUPO DANOSAT


# ESKU TITITZAK

## BARRENen oharra:

Aste Santuko oporrak direla-eta, apirilaren 21ean, Ostiral S antuan, ez dugu BARREN kaleratuko. Hurrengo zenbakia apirilaren 28an, ostirala, aurkituko duzue zuen etxeko buzoietan. Astebeteko etenaren ostean, gure aldizkaria gogo gehiagorekin hartuko duzuelakoan, ondo pasa oporrak.

## Gazteok Kanbon ikusiko dugu elkar

**r'atorren** egunotan, 20, 21 eta 22, **1—/**Jarrai eta Gazteriak gazte erakundeek, topagunea antolatu dute Kanbon. Bertan hainbat ekintza eta talde kultural izango dira: hitzaldiak, kontzertuak, eztabaidak... Beraz, hiru egun iraungo duen bilgune hontara joateko deia egiten dizuegu. "Euskal gazteok, Euskal Herria Dugu irabaztekoǃǃ Jo Ta Ke irahazi arte!!". Autobusa Eleoibartik pasako da, sarrerak Oizmendi eta Txuri Beltzen daude salgai.

**Elgoibarko Jarrai.**

## Haur krosa

Tkastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean egindako VII. Haur Krosa antolatzen lagundu diguten guztiei, batez ere, Udalari eta babesle izan den Kutxari.

Datorren urtean ere, apirilaren I ean laguntzeko prest egongo zaretelakoan. eskerrik asko denoi.

**Elgoibarko Ikastola**

## Herri bat, Gaztetxe bat

zken urte hauetan Mendaro lotarao gune izan da. Alde batetik Udalak etxebizitzak eraikitzeko duen obsesioa dela-eta, beste aldetik, gazteon artean dagoen inkomunikazioa. Gazteok hitz egiten dugun une hakarra juergan juntatu ohi garenean da (koadrilatik aparte), bestela oso erlazio hotza eta distantea da (hola, edo buruarekin keinu hat). Agian, horren arrazoia, beti edozer topatzeko Mendarotik irten behar dugula da, eta ez diogu geure buruari plenteatzen Mendaron ere zerbait egin dezakeaula.

Badirudi, gauzak aldatzen hasi direla, bazen garaia! Leike' sortu zen, gero ˉPlataffirma Aktiboa', herria esnatzen hasi da eta horrek Gaztetxe bat sortzea eskatzen du. Gaztetxea ekintza kulturalak, kirolak, ikastaroak... antolatzeko eta bideratzeko da.

Askori, Gaztetxe hitza entzunda, 80. hamarkadako mobida datorkio burura: kontzertu eskandalosoak, jendea kriston txilioak egiten... Baina Mendaron Gaztetxe hitza esaten denean lokal bat da, gazteak eta ez hain gazteak gustura egoteko tokia, ekintzak antolatu eta jendearen artean benetako komunikazio bat egon dadin, pasibitatea kendu eta iniziatiba pizteko lekua, tolerantzia eta erantzukizuna lantzeko gunea, herriari beste bizitasun bat emateko.

Argi utzi nahi genuke erabakiak gure esku egongo liratekeela eta ez koordinatzaile baten eskutan, gure bidea jorratzeko ordua baita.

Baina hori ez da gauza erraza, jendea inplikatzea eta lana egitea esan nahi du. Benetan nahi bada, lortuko da Mendarok Gaztetxea izatea. Bi hitz esanez bukatu nahi genuke: animo eta aurrera!

**Mendaroko Gaztetxearen Aideko Ekimena**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dule argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **Izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia.**

• Emakume bat etorri da **Merkatu Plaza azpian, kontenedoreak dauden lokala, oso zikina dagoela eta bertan usain txarra egoten dela** esanez. "Ongi egin zuten kontenedoreak lokalera sartzen, horrela herriak itxura garbiagoa baitu, baina ez da batere kostatzen noizean behin erratza pasatzea. Izan ere, Gabon ostean botatako pinuak bertan daude oraindik".

• Emakume batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu, "Bernardo **Ezenarro kalian alkantarilla bat egoera txarrian dao,** ez dala denbora gutxi hankia sartu eta txorkatilia okertu na ban. Neri bezelaxe besten bati ere gauza berdina pasatzeko arriskua dao. Beraz, dagokixonari konpontzeko eskatu nahi nio ke, beste inork horreIako sustorik izan ez dezan".



## TXALOA

• Neska gazte koadrila batek **Udaltzaingoa txalotu nahi du, "Errosario kalean autoak ziztu bizian ibiltzen zirela kexatzen zen jendea. Kexa hauei kasu eginaz, kalea itxi dute Udaltzainek.** Orain, gutxienez, las aiago eta seguruago ibili ahal izango gara gure herriko kaleetan",

• Emakume batek `Toletxe' **taberna irekitzea posible egin duten guztiak txalotu nahi ditu, "animo** eta ia elgoibartar guztiak elkartzeko txokoa izaten den hemendik aurrera."

# BAI, ESAN?





**ZigorEsnaola**
Heziketa Iraunkorreko arduraduna

Eusko Jaudaritzak lanbide koalifikazioen sistema jarri du martxan. Hobetuzekin eta Koaliftkazioen Lanbide Heziketaren Euskal Institutuarekin batera. Gure gizarteak langileen gaitasunak ezagutzeko duen beharraz ohartuta, Elgoibarren koalifikazio hauek lortzeko hainbat ikastaro antolatu dira IMHn. Gu honen arduraduna den **Zigor Esnaolarekin** izan gara argibide gehiago jasotzeko asmoz.

**- Zer da lanbide koalifikazio sistema? -** Lan alor zehatz baterako pertsonen gaitasun profesionalak azaltzen dituen dokumentua da. Gaitasun horiek dituela demostratzen duenak agiri bat jasoko **du.** Koalifikazio hauek hainbat ekoizpen sektoretako enpresek definitu dituzte. Lana kalitatez eta efikaziaz egiteko langileek zein konpetentzia eduki behar dituzten jakingo dute enpresariek. Koalifikazio profesionala ondo egindako lanaren emaitza da.

**- Zertarako balio du?** Kontratua egiteko orduan langileak bere gaitasun profesionalak zein diren azaldu ahal izango du agiri honen bidez. Honek langileen enplegutza eta mugikortasuna erraztuko ditu.

- **Nola eskuratu daiteke lanbide-koalffikazioa? -** Ezagutza eta egiaztatze sistema bidez lor daiteke, praktika eta esperientzia baloratuz. Agirja lortzeko beste bide bat, heziketa zikloak egitea da. Moduluen katalogoak onartu behar ditu ikasketak, eta behar bezala amaitzen dituenak agiria jasoko du.

- **Zer da heziketa moduluen katalogo integratua?** Heziketa gaien multzoa da. Gai hauen bidez, maila jakin batetik aurrera koalifikazio profesionalak eskatutako gaitasuna eskuratuka da. Gai jakin horiek moduluetan batu dituzte. Bestalde, gaur egun lanean ari direnei ezaztasunak emateko, modulu hauek heziketa unitate txikietan banatu dira.

**Zein baldintza bete behar dira IMHk eskaini eta Hobetuzek flnantzatutako ikastaroetan parte hartzeko? -** 1999an Hobetuzek egindako deialdian Heziketa Moduluen Katalogo Integratuarekin zerikusia zeukaten lan ekintzak aurkezteko aukera eman zitzaien langileei. Ikastaroa egiteko baldintza bakarra Ianean aritzea da.

**- Zein ondorio izango ditu ikastaroak egiteak? -** Bere gaitasuna egiaztatzeko, ikastaroan parte hartzeaz gain, helburuak bete dituela ziurtatu beharko du langileak.

- Kontabilitate
- Lan
Kalamua, 12
ELGOIBAR
**Tel-Faxa:**
943 74 18 91
**URKIDI**
**AHOLKULARITZA**
**1TT ERCOS ASEGUROAK**

**KAFETEGIA**
943 74 42 65

# TOLETXE

## TABERNAren INAUGURAZ



Langile protesionalez gain, borondate hutsaren truke lan egingo duten hamaika lagun izango da TOLEIXE[n]. Prolektua partizipatiboa eta herrikola izateko izaerarekin sortu baita.



Taberna bat baino zerbait gehiago izan nahi du TOLETXEk. Elgoibartarrentzat erakargarria izango den gunea izan nahi du.



Argazkian Ikus daltekeen moduan, in railo egunean lendez gainezka egis Tot.eoca.



TOLETXEko ateak *adin* eta era guzfietako jendearentzat claucte zabalik. Ez da gutxi batzuen "ghetoa" izateko prestatu.



Hainbat kultur adierazpen faufaratzeko gunea *izan* nahi du TOLETXEk. Helburu horren adierazgarri ditugu inaugurazio eguneko ekitaldiak: dantza,...



Itxaropena Abesbatza,...



Euskara izango da TOLETXEko hizkuntza. Hatere, honek ez du esan nahi beste hizkuntzei tokirik egingo ez dietenik edo euskara ez lakiteaga tik inor baztertuko denik. Erdaldunen integrazioa da helburuetariko bat.



bertsolariak,...

Pasa den apirilaren 7an, barixakuan, inauguratu zen Toletxe taerna. Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen beste proiektu bat da OLETXE. Iñasio Garmendia Elgoibarko Izarrako lehendakariak inaugurazio ekitaldian adierazi zuen moduan, "TOLETXE ez da aberna bat besterik gabe, hori baino zeozer gehiago izateko sortua izan da". Beraz, zertarako, norentzat eta orokorrean nola funtzionatuko duen TOLETXE tabernak jakiteko Aitzol TOLEXEko zuzendariarekin egin dugu berbetan. Bestetik, inaugurazio kitaldian izan ziren hainbat ekintza argazkitan laburbildu ditugu.

# IOA



ugu-
zuen



Jaio berriekin egiten den moduan, taberna berriak ere jaso zuen bereinkazioa **Jose** Berroso apaizaren eskutik.





Elgoibarko *izarra* Kultur **Elkartearen** beste proiektu bat da Toletxe. Kafean elkartearen eta euskararen presentzia iraunkorra lortu rtahi du,



haurrentzako ekintzak eta jolasak,...

## **Aitzol Arriola,** TOLETXEko zuzendaria:

## "Bertara sartu eta gustura sentilzen iiren guidel zuzendutako preiektua da TOLETXE"



**TOLETXE proiektu berriaren zuzendaria zara? Nota ikusten duzu zure burua eginbehar honen aurrean?** Neri dagokidanez, ilusioz eta gogoz beterik nago holako proiektu hatian parte hartziagatik. Bestalde, TOLETXE Elgoibarrek bihar daban zerbait dala beitxantzen jata, gauza asko eskaini leike Elgoibarri.

Zein izango **dira zure eginbeharrak?**
Nire lana ez da TOLETXE gestionatzia izango, horretarako badaude profesionalak. Nolabait esateko TOLETXEko aurpegi bisiblia izango naiz. Elgoibarko Izarran proiektua danez, Elkarteko zuzendaritza batzordian eta TOLETXEn arteko zubi lana eitxia izango da nere arduria. Hau da, elkartian helburuak hetearaztiaz ardurauko naiz. Bestetik, tabema soila baino gehixao izango danez, herritxarrek TOLETXEn inguruan ditxuzten iritzi, kexa eta iradokizun guztixak jaso eta aztertuko ditxut. Gogoratzia komeni da herritxarrek sortu dabela TOLETXE. Hain zuzen ere, 42 elgoibartar 500.000 pezeta arriskatzeko prest azaldu zialako atera da aurrera proiektu hau, tabernaren obrak bakanik 35 milioiko aurrekontua baitzeukan.

**Zein da TOLETXEren eskaintza?**
TOLETXEn sartzen direnek 3 gune ezberdin bereiztuko dituzte sartu eta segiduan. Lehenik 11 metroko barra bat dago. Gero 30 lagunentzako jantokia eta azkenik, hainbat kultur adierazpen taularatzeko eszenatokia. Hauez gain, tabernaren hormak erakusketak egiteko erabiliko dira eta uda sasoian terrazatxoa jartzeko aukera izango da.

**Zer da TOLETXE zure hitzetan? Nori zuzenduta dago?**
TOLETXE ez da taberna arrunt bat besterik gabe izateko sortu, kulturgune bat izateko baizik. Elgoibarko bizitza kulturalean beste aukera bat izan dadila nahi dogu, adin eta era guztietako jendiantzat heste alternatiba kultural bat gehixo. Gainera, TOLETXEn bitxartez euskarak bere lekua izango du kalian, beti ere beste hizkuntzak haztertu gabe. Azkenik, Elgoibarko Izaffan irudixa kalera atera edo henitxanei hurbiltzeko ere balio du. Guzti honen gainetik, ordea, gure asmo nagusia, TOLETXE eskaintza atsegina daukan toki atsegin bat izan dadila da. TOLETXEra sartu eta bertan gustura sentitzen diren guztiei zuzendutako proiektua da.

**Lehen hilabetetan zein izango dira zuen helburu nagusiak?**
Lehenengo hilabetietan TOLETXEko eskaintza finkatzia eta definitzia izango dia helburu nagusixak, sustraiak jartzia. Hasieran gauzak *ez* dia guk nahi bezain ondo urtengo eta badakigu hainbat arazori aurre egin biharko diegula. Ondoren, gauzak bide honetik baduaz, TOLETXEn dinarnikak berak markauko du hartu biharreko norabidia zein izango dan.

**Zer esango zenieke elgoibartarrei TOLETXEra hurbiltzeko?**
Lehenik eta behin TOLETXE zer dan ikusteko bertara juteko esango nieke, danak izango dia ongi-etorriak. Taberna batek dauzkan gauza guztiak dauzka, baina beste giro batekin egingo dabe topo, baita tabemetan ikusi ezin daitezkeen hainbat ekintza eta ikuskizunekin ere. Ondoren zerbait ez bazaie askorik gustatu bildunik gabe azaltzeko esan nahi nieke, gauzak hobetuz joango gera-eta.

Astehman Real-Athletic futhoi Derhya jokatuko da

# Reala ala Athletic izango da aurrerago liga amaieran?



**ANTONIO ROMERA**
53 urte, pintorea

Athletiak. Gainera rtiri ere hala gustatuko litzaidake. Hala ere, ez dut horren argi ikusten. Athletiak ez du urte askoan derbirik irabazi eta ea oraingoan 1-3 egiten duen.



**BENANCIO LEMOS**
33 urte, ruarinela

Realak, dudarik gabe gainera. Igandeko derbian ere Athletici irabazi egingo dio eta emaitza 3 eta I izango da, argi daukat.



**EUGENIO CARO**
46 urte, espezialista

Gauzak nola dauden ikusita elkarren parean geratuko direla iruditzen zait, baina bigarren mailara jaitsi gabe. Derbian berdinketa egongo dela uste dut.



**TOÑI MUÑOZ**
21 urte,
elikagaien manipulatzailea

Realzalea naizen aldetik, Donostiako taldea aurretik geratuko dela uste dut eta igandeko derbia ere Realak irabaz dezakela iruditzen zait.



**AINARA SANCHEZ**
20 urte, ikaslea

Enpatauta bukatuko dabe, eta danak pozik. Derbixa nahixao dot Athletixak irabaztia, baina uste dot enpatau eingo dabela. Hala bada, gol asko sartu daixazela behintzat.



**ADORACION GARRIDO**
59 urte, etxekoandrea

Realaren oso laguna naiz, eta aurretik joatea nahigo dut, biek ezin dute irabazi-eta. Derbian ez dakit zer gertatuko den, baina Realak puntuak lortzea gustatuko Iitzaidake.





ELGOIBARK0 EAren HERRI BATZORDEAK,
**ABERRI EGUNA** DELA-ETA,
ZERA JAKINARAZI NAHI DU:

Hilaren 23an, Gernikan ospatuko diren
**BAZKARI** eta **MITINERAKO TXARTELAK**
ERRESERBATU NAHI DITUENAK
943 74 15 22 telefonora dei dezakeela
APIRILAREN 16a BAINO LEHEN. Gauez deitu.



karfazano
San Frantzisko, 14 - TeL 943 74 05 49



# ISPILUARI BEGIRA



PON 1 (ylifULTI X,A

**HORMAN BEROGAILUETAKOA**

- Gas naturala ala elektrizitatea? Elektrizidadia, eta elektrizidadia ez bada, nahixao dot beste gauzaren bat gasa baino.
- Oporretarako Karibeko uharte beroa ala Ipar Polo hotza?
- Karibeko uharte bero bateko hondartzan etzanda gusturago egongo nintzateke.
- Zerk berotzen zaitu? - Oso zaila da ni berotzia, nahiko trankila naiz-eta, baina diskusiuetan gogor jartzen naiz.
- Inoiz jarri al dizute burua bero-bero? - Bai, askotan.
- Hotzari aurre egiteko modurik onena?
- Gure kalefazivak, panelen bidez berotzen dabenak.
- Zure bizitzako zein momentu izoztuko zenuke?
- Momentu konkretuak ez, baina igual Elgoiharren jaixetako Txiki Eguna aukeratuko nuke.
- Lagun artean giro beroa sortzeko metodorik?
Sozidade batian afari on bat itxia.
- Pertsona hotza ala beroa zara? - Hasieran hotz agertu arren, pertsonak ezagutu ahala aidatzen juten naiz.
- Zer izkutatuko zenuke horma baten atzean?
- Gauzak ezkutaluta egotia ez jata gustatzen, baina zeozer ezkutatzekotan panelak ipiniko nitxuzke.
- Eta zer ikusi nahiko zenuke horma baten atzetik?
Reala zulotik ateratzen ikustia gustauko litzaidake.
Neguko berotasuna ala udako haize freskoa?
Udako haize freskua naturalena da.
- Zenbat denbora aguantatuko zenuke eguzki berotan hondartzan etzanda?
- Asko, baina uretan ere denbora asko pasatzen dot.
- Goizean esnatzeko dutxa hotza omen da onena.
- Neretzat ez, dutxa berua hobia da.
- Pertsonen zein ezaugarrik jartzen zaitu sutan? - Inhidixia ez jata batere gustatzen, ezta azpitik ibiltzen dan jendia ere.
- Munduko zein eraikinetan jarriko zenituzke berogailuak?
- Euskal Herriko edozein lekutan. Elgoibarren, elizan, adibidez.
- Oherako poltsa-berorik erabiltzen al duzu? - Ez, etxia nahiko bero egoten da.
- Ez nau izutzen negu hurbilak, uda beteko beroan...
- Nahixao dot uda edo udaberrixa, baina kontrastia ere ona da.


j#Anchtjstegui s.a.

ZERAMIKAK

Erakuskela eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tet: 943 74 33 44 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 74 20 38 - 74 23 71

[ iriondo TABERNA

Astegunetan 7:OOetan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 - Tel: 943 74 00 15




Xes'G
eta

gazteentzako
oinetakoak

San Frantzisko, 20

# Udaleko Euskara Batzordeak egindako ikerketaren arabers Elgoibartarren %38,3ak berba egiten du euskaraz kalean

## Haurrak dira euskara gehien erabili ohi dutenak

Hizkuntzaren bizitasun adierazlerik nagusiena erabilera dela kontutan hartuz gero, Elgoibarren euskaraz zenbat hitz egiten den aztertu du Udaleko Euskara Batzordeak. Giro ezberdinak neurtzeko, asteko 6 egun aukeratu dira eta egun bakoitzean ordutegi bat. Neurketarako 5 elgoibartarren laguntza izan du Euskara Batzordeak eta bakoitzak leku batean bildu ditu datuak.

6.923 elgoibartarren hizkuntz joera neurtu da eta horietatik %38,3ak hitz egin du euskaraz. Ikastetxeetan eta jolaslekuetan erabiltzen da euskara gehien. Honen ondoren daude familia giroa, txikiteoa eta gazte giroa, eta azkenik erosketak. Txikiteoan igoera izan da; erosketetan eta gazte giroan, aldiz, jaitsiera. Hiru hauek dira, hain zuzen ere, esparrurik erdaldunenak.

Belaunaldi bakoitzak esparru ezberdinetan izandako aldaketak ikusiz gero, helduek, gazteek eta zaharrek gorabebera handiak azaltzen dituzte. Esaterako, ikastetxetik ateratzean gazteen %44,3alc egiten du euskaraz; txikiteoan %26,4ra jaisten da erabilera. Helduen kasuan, paseoan eta jolaslekuetan %37,4ak egiten du euskaraz eta txikiteoan, berriz, %20,5ak besterik ez. Zaharrei dagokienez, txikiteoan %41,5ak euskaraz egitetik familia giroan %22,7ak egitera pasatzen da. Dena den, kontutan hartu behar da txikiteoan 166 zaharren erabilera neurtu dela eta familian, beniz, 374 pertsonarena.

Urtez urteko datuak konparatuz gero, adinaren araberako emaitzak antzerakoak direla ikus daiteke. Eusktua gure herrian haurren hizkuntza dela dirudi, beraiek dira gehien erabiltzen dutenak. Helduek, aldiz, gutxien, %27,6ak besterik ez. 1997an eta 1998an helduen eta zahanen artean elgoibartarren arteko euskararen erabilera igo egin zen; 2000. urtean, berriz, 1.997ko datuetara hurbildu dira emaitzak.

EUSKARAREN ERABILPEN DATUAK ELGOIBARREN URTEZ URTE

| | 90 | 91 | 93 | 94 | 95 | 96 | 97 | 98 | 00 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Haurrak (0-14** urte) | %25,7 | %40,5 | %40,9 | %47,3 | %58,9 | %52,9 | %68,6 | %68 | %66,7 |
| **Gazteak** (15-24 urte) | %16,4 | %22 | %15,3 | %30 | %25,2 | %29,5 | %39,3 | %39,1 | %37,6 |
| **Helduak** (25-64 urte) | %14,9 | %19 | %18,7 | %23,3 | %23,4 | %23,3 | %26,7 | %29,8 | %27,6 |
| **Zaharrak (65** urtetik gora) | %36,7 | %43,8 | %44,6 | %41,5 | %39,4 | %40,8 | %35,1 | %40,6 | %33,2 |
| **GUZTIRA** | **%20** | **%25,2** | **%25,4** | **%31,8** | **%31,9** | **%31,7** | **%37** | **%40,3** | **%38,3** |

# "Hobetu zure etxea, barputik eta kanpotik" kanpaina jarri du martxan lDebegesark

## Herriko eraikinen errehabilitazba da programaren helburua

rybegesak (Debabarreneko **llEkono m i aren** Garapenerako Elkarteak) eraikinen konponketarako kanpaina jarri du martxan. Plan honen helburua, eraikinen hobekuntzak dituen abantailak herritarrei azaltzea eta berrikuntzetarako laguntza teknikoak eta ekonomikoak eskaintzea da.

"Hobetu zure etxea, barrutik..., eta kanpotik" lelopean, ¯Naturgas", ¯Euskalter, ¯Zardoya-Otis' eta ¯Angel Iglesias-Ikusi¯ enpresek lagunduko dute kanpaina eta baita Gipuzkoako Kutxak eta Euskadiko Kutxak ere. Enpresek ¯Debegesa'rekin hitzarmena sinatu dute eta hobetze lanetan prezioak merketuko dituzte.

Interesatuei informazioa eman eta lor daitezkeen dirulaguntzak zein diren esateaz gain, arazo administratibo eta teknikoetan Iagunduko dute. Plan honen bidez eraikinetan hainbat berrikuntza-lan egingo dira: igogailuen instalazioak, antenak, gas naturala, telefonia, fatxaden eta teilatuen konponketa lanak... Kanpainaren buitzatzaileen esanetan, "lan hauek guztiak denon artean zaindu beharrekoak dira".

¯Debegesa'k martxan jarri duen zerbitzuak errehabilitazio lanetan Iaguntzeko informazioa eta aholkularitza eskainiko ditu. Beraz, interesatuak `Debegesa'k Eibarren duen bulegora joan daitezke (Ibarbe etorbidea, Rialto zinearen eraikinean).



*Plan honen bidez eraildnetan igogailuen instalazioak, antenak, telefonia eta gas naturala jarriko dira, baita fatxadak eta teilatuak konpondu ere,*



## Ate irekien eguna IMHn

Joan den asteazkenean, hilaren 12an, ate irekien eguna egin zuten IMHn. Bertaratu zirenek ikastetxean egin daitezkeen ikasketen berri izan zuten. Lehendabizi instalazioak bisitatu zituzten eta ondoren, bi hitzaldi entzuteko aukera izan zuten. Hitzaldietan, goi mailako enpresa ikasketei buruz hitz egin zen. Lehendabizikoan, txandakako-injinerutzako ikasketen aurkezpena egin zuten, bigarrenean, aldiz, Gestio Eskolari buruz aritu ziren. Bestalde, IMHko arduradunek jakinarazi nahi dute, ate irekien jardunaldira joaterik izan ez zutenek ikasketa hauen berri jaso nahi badute 943 74 41 32 telefonora dei dezaketela. Zenbaki honetan eskolaren inguruko argibideak emango dizkiete.

## • Finalista Egunerako mendien zerrendak aurkeztu behar dira

Morkaiko Mendizale Elkarteko zuzendaritzak aditzera eman duenez, urtero bezala aurten ere Finalista Eguna izango dute ekainaren 4an. Egun horretan San Pedron domina jaso nahi duten mendizaleek 1999. urtean igotako mendien zerrenda aurkeztu beharko dute Morkaiko Mendizale Elkartearen egoitzan, maiatzaren 6a (larunbata) baino Iehen. Bestalde, gogorarazi nahi dute Elgoibarko Mendi Itzulia maiatzaren 21ean izango dela.

## • Gutxitu fisikoentzako oporraldi programa

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak elbarritasun fisikoak edo sentsorialak dituzten pertsonentzako oporraldi programa antolatu du Forn Aldundiko Gizartekintzarekin batera. Elbarritasun fisikoak dituen 16 eta 65 urte bitarteko jendeak har dezake parte, baita elbarritasun agiri ofiziala 65 urte baino lehen lortu eta adin muga pasatu dutenek ere. Mugitzeko arazo Iatzak eta diru sarrera eskasak dauzkatenek lehentasuna edukiko dute. Elbarriak pertsona baten laguntza behar izanez gero, honek bidaia besteen prezio berean izango Iuke. Egonaldiak Benidormen, Saloun, Oropesan, Torremolinosen, Palarnosen eta Fuengirolan izango dira eta Italiarako bidaia bat ere bada tartean. Programa honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero Udaleko Gizarte Ongizate Sailera jo dezakezue.



## `Sorterrirai diskoko kantuak eskaini dituen 'Trepi eta Arauakf Reggae taldea Hgoibarren

`Trepi eta Arawak musika talde gasteiztarrak kontzertua eskaini zuen joan den ostiralean hilaren 7an, Iratxo Rock-Kafean. Euskal Reggea entzutera jende gutxi hurbildu bazen ere, oso giro poIlta izan zela esan digute Iratxokoek. Kontzertuan, duela urtebete kaleratutako `Sorterrira' diskoko abestiak kantatu zituzten. TaIdeak bi disko ditu kalean, azken hau eta "Cuerpo a euerpo" euskarazko eta gutelaniazko abestiak nahasten dituena. Gaurko beste kontzertu hat zegoen antolatuta, haina aurreko emanaldietan izandako zarata dela-eta bizilag,unak kexatu egin dira. Ondorioz, baimena kendu diete eta oraingoz ezin izango cla Iratxo Rock-Kafean beste kontzerturik entzun.

ELENA
illeapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franizisko 49-1 Tel: 943 74 1I 89

Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalago
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 1T 943 74 12 56 (mobila) 609 53 23 83



# Aste Santuko opornn ostean hEsiko dira Albitxuriko industrialdea urbanizatzeko lanak

## Guztira 48.000 m2 urbanizatuko dira

Sei talderen proposamenak aztertu ostean, Albitxuriko poligono industrialeko obrak 'Amenabar' enpresaren esku lagatzea erabaki dute Elgoibarko Industrialdeko arduradunek. Guztira sei enpresak jarri zituzten urbanizazio proiektuak mahai gainean: 'Construcciones Galdiano', `Construeeionez Sobrino', `Altuna y Uria', 'Murias', `Amenabar' eta 'Moyua' enpresek hain zuzen ere. Seiak Iehian jarri ostean Amenabarren eskaintza onena zela ikusita, honek egingo ditu lanak. Guztira 700 milioitik gorako kostua izango dute Ianek.

48.000 $m^2$ urbanizatu beharko dituzte eta lur hauetan enpresa berritzaileak eta lanpostu berriak sortzen ari diren industriak kokatzeko asmoa dago. Udaletik aditzera eman dutenez, aste gutxiren buruan hasiko dituzte lanak. "Gure asmoa lanak lehen bait lehen hastea da, Aste Santuko oporren ostean eskabadorak Albitxuriko lurretan sartzea nahi dugu", adierazi zuen Gillermo Garatek.



*Industrialdeko lanek 700 milioi pezetatik gorako kostua izango dute.*

**Plan partziala onartuta**

Gainera, industrialdera iritsi aurretik dauden ibarren jabeekin harremanetan jarri ondoren, akordio batera heldu dira. Terreno hauek, Maiortako pinadiko lurrez beteko dira poligonoa zabaldu ahal izateko. Bata bestearengandik hain gertu egonda garraioan ez da apenas dirurik gastatuko. Baina lur hauek doan Iagatzearen truke, Udalak lurrak ondo berdinduta itzuli beharko dizkio jabeari, eta gainera lur industrial izendatu beharko ditu, orain nekazaritzarako lurrak baitira.

Bestalde Albitxuriko plan partziala joan den apirilaren 4an onartu zutela jakinarazi zuten Udaleko ordezkariek. Honen arabera industrialdean egin beharreko errotondaren %50a Elgoibarko Industrialdearen ardurapean egongo da, eta Udalak, elkarte honen barnean dagoen aldetik, garbi utzi nahi izan zuen ez duela gai honi dagokionez diru gehiagorik jarriko.

## • Bake epailea izendalzeko deialdia

Elgoibarko Udalak aditzera eman nahi du bake-epaile berria izendatzeko aukeraketa egingo dela aurki. Lanpostu horretan interesatuta daudenek apirilaren 25eko eguerdiko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak udaletxeko idazkaritzako bulegoan. Hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Espainiana eta adin nagusikoa izatea, eta Epai Agintaritzako Oinarrizko Legeak jarritako ezintasunen barne ez egotea.
- Bateraezintasun auzien eta epai eginkizunak betetzeko emandako debekuen barne ez egotea, lanbidezko edo merkataritzako ihardunetan izan ezik.

Gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxeko idazkaritzara jo dezakezue.

# Trafiko eta aparkalekuen azterketa egingo du Udalak

## Autoak nondik nora ibiltzen diren kontrolatuko da

Udalak Elgoibarko trafikoa eta aparkalekuak aztertzeko proiektuaren lehen faseari ekin dio. •Leber' enpresa ari da ikerketa egiten eta fase honetan autoak nondik atera eta noraino ko ibilbidea egiten duten aztertuko da, baita ibilgailuak non aparkatzen diren ere. Herri ban¯uan autoak zertarako erabiltzen diren jakin nahi da. Batzuek aisialdirako erabili ohi dute, besteek, aldiz, lanera joateko... Behin azterketa amaitu ondoren, trafikoa lasaitzeko proiektuari ekingo zaio. Hau da, herri barruan trafikoa gutxitzea eta dabiltzan autoak abiadura txikiagoan ibiltzea lortu nahi da. Beste hainbat gauzaren artean aItxatutako zebrabideak egiteko asmoa dago. Azterketaren arabera, gutxienez horrelakn 8 behar dira EIgoibarren. Beste herri batzuetan hon¯elako zebrabideak jarri dituzte jadanik eta zebrabide bakoitzaren kostua 600.000 eta milioi bat pezeta artekoa da. Oraingoz Udalak kostuen datuak baino ez dauzka esku-artean, beraz, azterketa amaitu arte zain egon beharko dira trafikoaren arazoa konpontzeko.



*Elgoibarren 8 `zebrabide altxatze jartzeko asmoa dago.*

# [redacted] BARREN

[redacted] LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 62. GEHIGARRIA



## J [redacted]

### 7x44te [redacted]

Zoro batek bere erlojua botatzen du uretara, eta beste ero batek galdetzen dio:

— Zergaitik egin duk hori?

— Igeri egiten ote duen ikusteko...

— Baina eman diok kordarik?

— Ez, ba.

— Eta orduan, nola nahi duk igeri egitea?



# Jakitunen eskutik

## Bi begi bizitza osorako



Seme-alabei irakurtzeko garaia heltzen zaienean, guraso askok galdetzen diete beren buruari ea haurrek ikusmen arazorik izango duten. Hori dela eta okulistar; lehen bisita egiten diote, bere lehen liburuak irakurtzean edo arbela gelako azken ilaratik begiratzean problemarik ez duela izango ziurtatzeko. Baina adituen ustez ez da une hori iritsi arte zai egon behar, haurra jaiotzen denetik urtero egin behar da bistaren azterketa. Jaio eta egun batzutara haurrak argiak eta itzalak besterik ez ditu ikusiko, baina ikusmena zehazten joaten da eta urte terdi daukanerako haurrak ia heldu batek bezalaxe ikusiko du. Ikusmenaren garapena hain azkarra izanik kontrolatu egin behar da.

Haurrak ikusmen arazorik duen ala ez jakiteko etxecin honako proba hauek egin daitezke:

- Marrazki bat edo puzzle erraz bat egiteko esan. Horreterako lehenengo begi bat estaliko zaio eta ondoren bestea. Ikusmen arazorik ez badu agindutakoa erraz egingo du.

- Begi bat kartulina batekin estali eta opalean dagoen ipuinetako baten izenburua irakurtzeko esan. Irakurtzeko gai ez izan arren letrak argi ikusi beharko ditu. Ondoren gauza bera egingo dugu beste begia estaliz. Ikusteko zailtasunak baditu, urduri jarriko da edo beste begiarekin irakurtzen saiatuko da.

- Itsutasunik al duen jakin nahi badugu, begi bat estali eta aurpegitik 25-30 zm.tara jarriko diogun bere hatzamarrari begiratzeko eskatuko diogu. linterna batekin argitxo bat pasatuko dugu bere aurpegiaren paretik. Arazorik ez badu, uneoro ikusiko du argia.

Proba hauek egin ondoren haurrak begiak asko ikutzen dituela, urrutira begiratzeko keinu arraroak egiten dituela, askotan estrapozu egiten duela edo marrazkiak egitean paperera asko gerturatzen dela sumatuz gero, sintoma hauek pediatrari esan beharko zaizkio.

Oftalmologoarengana sarritan joateaz gain, kontu handia izan behar da ikusmena zaintzeko:

- Telebista argirik gabeko gela batean ez ikustea komeni da ez eta metro bat baino gutxiagoko distantzia gorde gabe ere.

- Ordenagailua izanez gero babes pantaila bat jarri, eta baita irakurtzeko argi egokia ere.

- Egunean gutxienez 9 ordu lo egiteo komeni da.

- Begietara ez tantanik bota medikuaren agindurik gabe.

- Begiak ez lituzke igurtzi behar, are gutxiago eskuak zikinak baditu.

**Iturria:**
**Crecer feliz alclizkaria**

# Zer daukazu ......4441« ...... buruz?



1140444 4,0**0441,th. 14444, 44,z4U4 d4. Earim.#144 em,44, 1414
em, telaw14"4 d4. 1-41c ,4444, utuUrizo,

ANA ETXEBERRIA, 9 urte



Dentistak haginak kentzen ditu eta batzuetan mina egiten du.

AMAIA LERSUNDI, 7 urte.



Osoly ~.Ea, 1at/W44 tt144 11144 1M141 401444 a4
341,1z 14,eit94 es,4./ z

AITOR ARRUABARRENA, 11 urte

cf



**NACCLIE RIDDRIGUEZ**
**7 urte**

# Gaide debalde

- Zein da gehien gustatzen zaizun ogitartekoa?
- Gogoko abesti bat.
- Zein pelikulatako protagonista izan nahi zenuke?
- Gehien gustatzen zaizun urtaroa?
- Zertan jolastea duzu gustuko?
- Zortea ematen dizun zenbakirik ba al duzu?
- Kirolari bat.
- Ba al daukazu maskotarik?



**AALCIS SEGUIRA**
**1 urte**

1- Jamon serranozkoa.
2- Gabonetako kantuak gustatzen lataz,
3- Pocabontasekua, oso politxa dalako.
4- Negua, elurra itxen du-eta.
5- Harrapaketan.
6- Bixa.
7- Indurain,
8- Ez, ez dakat.

1- Txorizo egosiarena,
2- Dover taldearen 2, diskoko lehen abestia.
3- 'Asterix eta Obelix` pelikulan, Obelix izatea gustatuko litzaidake.
4- Uda, hondartzara joaten naizelako.
5- Futbolean.
6- 3 zenbakia.
7- Roberto Carlos futbolaria,
8- Ez eta ez litzaidake maskotarik edukitzea gustatuko.

## Zer da.....7-elt-con- ?



**Mundua babesten duen kapa bat bezalako materiale bat da zerua.**



**iende asko bizi da bertan, gure birraitonak, aingeruak, baina inportanteena** Jesus da.



**Izarrak, hodeiak, eguzkia, ilargia eta haizearen burrunba ikusten diren lekua da zerua.**



**Eguzkia da niretzat zerua.**



**Zerua paraiso bat da. Hiltzen zarenean hara joaten zara eta Jainkoarekin egon zaitezke.**

MARTA MAYO 7 URTE



**Gauean ilargia egoten den lekua da.**

**ERANTZUNAK: 1-** Mendiko botak **2-** Ba al duzu Aste Santurako planik? **4-** Bidea, marraskiloa eta ohea.

.opioz!6 op za
ıo6op uoaxie einz
'oizluo! op za
olnop oloyo
'o!low!uo op za
21, ounpoluoH —

`13113W0.10p uop.indl olopio6
oop rijo6 uolwoH —

tpuep **zo** uazij!cp
131.1 00p zwoJoli
Joiap **JGZ** o4a oiap Jaz —



)111311112!)113111511 **4.**

**oawaq nfinp izinp! JeZ** **3.**



lop
a4sn piaTop olnosod
opuo uaispiol uo4ain
UDIGJJETUOLI 'z!ou
unl upinzioci aisag
·z!pu oBunl cuplavauoi
ulansneuegai ple
upiom 'ulDwo 'uppy,

**RCINON VIIVINV**

' UDISD101 UIDXIDUD
uazipcv tlinIsn6 oso Dia
zipu uajnI DJDZ4.1DpUOLI
UDIUDflOp DUO lpirijn53
›ionodolnxijp uozlospd
ur4 'zeualorp ons!d
aialowowy ¨z!Du oBunI
unio!xywo4„

**amn**

**ONidanu n3wix**





11

i,

11 **ofielp NapiD6 119z** **2.**

ғ,111311 Dp laz **1.**

# ;nintusa nozo nicosadcuoquaa

# CRUZ Arriola

*Makina Errenzintaren munduan izen handia da Cruz Arriolarena. Enpresa askoren sorreran hartu du parte 71 urte dituen elgoibartar honek, eta esportazioaren alorra jorratzea izan da bere lanik eta nahirik garrantzitsuena. Enpresen arteko elkarkidetzak sortzen ere lan handia egindakoa da. `Goratu' taldea sortu ondoren, gaur egun taldeko administrazio kontseiluan dihardu. Berriki XX. mendeko enpresari izendatu du Komertzio Ganberak eta Eusko Jaurlaritzak ere enpresari saiatuenei eman ohi zaien saria emango dio laster. Gu berarekin izan gara enpresa munduan Cruz Arriolak bizi izan dituen pasadizoak jakiteko asmoz.*

# "Bilboko ferixia makinia erremintxan Hollywood da"

—Oso goiz hasi zinen enpresa munduan, ezta?

Gazte hasi nintzan biharrian `Sigma'n. Poliki-poliki aurrera jun ginan administrazivan eta 1948. urtian esportaziorako sozidade bati ekin ginon. Lan-orduetatik kanpora ofertekin, petiziuekin... eitxen gendun biharra. Merkanzia bialtzeko merkau onena zein zan enterau ginan, eta ikusi genduan Afrika aldian eskopeten merkau ona zauala. Gero konturatu ginan eskopetak inportau biharrian makinak nahi zitxuela. Orduan tornuak, fresadorak eta giltzak eitxeko makina automatikuak ofertatzen hasi ginan.

—`Lagun' sortu zenuten gero.

1953an lankide batzukin lehenengo akzesorixuak eitxen hasi ginan eta gero fresadorak, eta hola sortu genduan Lagun. Nik esportazioko mentalidadia nakan eta tornuetan demanda gogorra zauala ikusi genduan. Gero, 1958. urtian `Geminis' formau genduan.

—Makina Erremintaren arloan momentu onak eta txarrak ezagutuko zenituen.

1959 eta 1961 urte bitxartian Komertzio ministro Ullastres izendau zaben. Honek Estabilizazio Plana ipini zaban martxan, eta makinak barruan saltzia zaila zan. Gero, dolarra ere ixo zan. 1962ko Bilboko ferixan eskaerak haunditxu zian eta sektoria indartzen hasi zan. Beste punto inportante bat inportazioko perrrtisuak izan zian. Bestalde, 1960xan Donostiako Ayuntamientoko bajuetan makinen esposizio bat montau genduan, autoridadiek gure sektoriak zakan inportantzia ikusteko. Argi gerau zan sektoria ezin zala behian geratu, eta aurrera atera bihar zala.

—Makina Erremintaren Feria Bilbon egitea garrantzitsua al da enpresarientzat?

- 1972an ferixiak gorputza hartu zaban. Beste probintzia askotako enpresarixuek ferixia Bartzelonan ipintzia nahi zaben. Prob1emak eon zian, baina azkenian gure astnuak irabazi zaban, makina erremintxian produkzivan %65a hemen zauan-eta. Gainera AFMk Europako fabrikantien asoziazivakin kontaktua zakan eta prestijio internazionala hartu zaban Bilboko ferixiak eta hori enpresarixuontzat oso inportantia zan. Bilboko ferixia makina erremintxan Hollywood da. Baina oin dakagunera ailegatzeko izardi asko bota bihar izan dou.

—XX. mendeko enpresari izendatu zaituzte. Laburtuko al zeniguke zer izan den zuretzat mende hau enpresari dagokionez?

- Sorprendidu in nitzan, ez nabalako holakorik espero. Lehen `Goratu'k ere omenajia in zian, oin 'enpresario del siglo' izena ipini die eta beste premixo bat ere eman bihar die. XX. mendiak zer eman daban erakusteko azkenengo ferixia ze interesantia izan dan ikustia besterik ez dao. Batek bistia atzeruntz bota ezkero abanzia besterik ez dau ikusten. Gaur egunian berbia bakarrik falta jakue makineri.

— Enpresa ingurua orain ezagutzen ari diren gazteei zer esango zenieke?

- Gu hasi ginanian problema gogor bat zauan, ez zauala dirua nundik atara. Oin erreztasun asko dao, baina gaztieri iniziatibia falta jakue. Ez neuke esango jende gaztia enpresetan sartzen ez danik, baina gogo gehixaokin ein bihar dabe enpresa munduan aurrera.

## gESTEEK ES/1Ntl

"Enprenditzeko eta lana gogoz egiteko, karisma lzugarria du. Familia eta osasuna ondo zaintzeko duen ahalmena beti izan ditut eredu". JESUS B1LBAO, lankidea eta laguna.








Mctv•ibel ViNety-ets

Maribel Viñaras 23 urteko elgorbartarrak 5 urte eta erdi daramatza Zaragozan. "Gauza berriak probatu eta haize berriak ezagutu nahi nituen, eta Turismo ika.sketak Zaragozan egitea pentsatu nuen". Gaur egun bukatuak ditu ikasketak eta `Sauee' Hoteleko harreran ari da lanean. "Hiriaren erdigunean dago gure hotela, Pilarreko basilikaren eta Pilarreko plazaren ondoan. Batez ere, enpresariak izaten dira gure bezeroak. Noizean behin bezero elgoibartarrik ere izaten dugu". Zaragozan oso gustura dagoela aipatu digu Maribelek, "jendea oso jatorra eta atsegina da. Ez zitzaidan batere kosta bizimodu eta leku berrira ohitzea. Pisua erosi berri dut eta ahizpa ere konbentzitu dut hona etor dadin. Berak ere hemen hasiko ditu ikasketak, nik egin nuen moduan". Elgoibarrera familia eta lagunak bisitatzera etortzen dela azaldu digu, baina baita horretarako egun libre gutxi dituela ere. "Hotel batean lanean ari naizenez, ostirala dut egun libre bakarra, eta zaila da hemendik mugltzea". Zaragozatik zerbait aipatzekotan bertako jai nagusiak (Pilar Eguna, urriaren 12an) oso ikusgarriak direla esan digu "eskualde ezberdinetako jantziak janzten ditu jendeak eta bertakoek barru-barrutik bizi dituite pilarika jaiak. Bestalde, lora eta fruta eskaintzak oso ikusgarriak izaten dira".

4111111.

**bidaia agentziak babestutako atala**
Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

# GOGORATUZ

## Manuel Ferorde/ Conde

## (1927-1989)



• 1927ko urtarrilaren lean jaio zen Orenseko Villar de Flores herrian (udaletxez Allarizkoa). 18 anai-arreba izan ziren, bera hamabigarrena; gaur egun, 7 bizi dira. Teresa, hemezonziganēna Elgoibarko Santa Ana kalean bizi da,

• Umetan 14 urtera arte ibili zen eskolan. Etxerako lanak eta errekadu batzuk eginaz eta auzokoekin jolastuz pasatu zuen ume denbora. Manuelek, etxeko, baratzeko, frutategiko eta soroko lanak egiten zituen za1diekin.

• Gazte sasoia, jaietan katta jokoan eta ncantxetan igaro zuen. Lagun artean Ginzo de Limia, San Gines, Allariz eta beste hainbat herritako erromerietara joaten ziren. Gogokoak zituen herriko zaindariaren, Virgen de Villar de Floresen, omenez egiten ziren jaiak.

• Manuel sarritan joaten zen Maceda, Allariz, Junquera de Ambia, etabarreko azoketara ganaduekin, salmentara eta etxeko jirak egitera.

• Gorputz handiko gizon hau langilea zen. Soldadutza Orensen egin zuen. 1950ean ezkondu zen Allarizen Portela de Ainabelako Obdulia Femandezekin eta hiru alaba eduki zituzten: Raquel, Coro eta Merche; suhiak, berriz, Luis Castro(t) eta Juan Carlos Etxeberria.

• 1954an Elgoibwera etorri zen familiarekin eta San Pedroko fabrikan hasi zen lanean. Denboraldia eginda `Sigma'ra aldatu zen,Enpadronatuta, herritar egin zen laster eta irekia zenez adiskide asko egin zituen, gainera hemen galiziar asko mgoen.

• Itxura oneko gizon galant hau familia girokoa zen eta ongi bizi izan zen. Askotan emažtearekin paseatzen ibiltzen zen eta gustukoa zuen herritarrei bromak egitea. Sinpatikoa eta sinesmenekoa zen eta zintzo asko joaten zen hiletetara.

• Gogokoa zuen mendian ibiltzea, penetxikozale amorratua zen. Zine znlea ere bazen, eta kirolak et.t aldizkariak irakurtzea gustatzen zitzaion, euskarazko hiztegia aldamenean hartuta.

• 1986ko ekainaren 15ean hil zen 59 **urte** zituela.

**Juanito Gorostiza**

CAUNTEG CONFORT

**HORMAN BEROGAILIJAK**

**EZAUGARRIAK**

O HORNIAKO PINTURAREN EDO ESTALKI APAINGARRIEN ATZEAN GELDITZEN DA IZKUTATUTA.

• Ez DITU HDRMAK ZIKINTZEN EZ ETA ATIVIDSFERA NUTSATZEN ERE,

111 EDOZEIN HORIVIATAN IPIN DAITERE ERRADIADORE, HODI ETA GALDARARIK GABE„

O KONTSUNIO BAXUA, IPINTZED AZKARRA ETA MANTENU GASTURIK GABE.

• ABERIABIK GABE, 5 URTER11 GARANTIA.

**HORMAN BEROGAILUAK**
PANELEN 810121(0 BEROGAILUAK
Jausoro Plaza, G
(Santa Klarako errotontla)
Tel./Fana: 943 74 00 50
20870 EIGOIBAR



Aste honetako erretratu zaharra **Sabin Zabaletak** laga digu. 1965. urtean ateratako argazkia da paretean zintzilikatutako egutegian ikus daitekeen moduan (begi zorrotza dutenek). San Lorentzo bailarako lagun koadrila honek bi1dots-jana eduki zuen Eibarko Azitainen, eta afalostean atera zuten argazkia da honakoa. Bertan, pilotari bikainak izandakoak ere agertzen dira. Javier Arriola, adibidez, Munduko Txapelduna izan zen eskuz banaka; eta Jose Alonsok, berriz, hainbat aldiz irabazi zuen Debarrokopilota txapelketa. Ikus dezagun nortzuk diren mahaiaren bueltan eserita daudenak:

Zutik, ezkerretik hasita: **Juan Migel Esnaola** eta **Luis Elustondo.**

Eserita, ezkerretik hasita: **Javier Arriola, Victor Arrizabalaga, Santi Bollar (t), Valerio Garitagoitia (t), Jose Alonso, Sabin Zabaleta, Sabin Arakistain** eta **Jose Mari Etxeberria.**

# ″Be "Dal Il bezala e gera1 edezeinak har dezake parla duatlid batean”




## Josu Artetxe

- **Adina: 33 urte**
- **Zer egiten duzu denbora librean?** Kirola egiten dut edo besterik gabe paseatu.
- **Nork irabaziko du derbya, Realak ala Atletic-ek?** Realak 1 eta 0.
- **Estresa kentzeko?** Menditik buelta bat ematea bezalakorik ez dago.
- **Kirolik gabe ulertzen al duzu bizitza?** Ez, niretzat beharrezkoa da. Bi egun kirolik egin gabe pasatzen baditut izaera ere aldatu egiten zait.

**- Josu, lehen elgoibartarra izan zinen Duatloian. Gustura egindako lasterketarekin?** -Bizikletan nahiko ondo moldatu nintzen, baina hasierako 7'5 kilometroetan ez nintzen oso fin ibili. Gutxi entrenatu **dut** korrika, eta ez nago batere forman. Hala ere, bukatzea zen nire helburua, eta alde horretatik pozik nago. Gaur egun jendea oso ondo preparatzen da eta zaila izaten da postu onak egitea.

**Aspaldian duatloi batean parte hartzeke zeunden, ezta?** Bai hala da, 6 urte daramatzat ezer egin gabe. Lehen asko ibiltzen nintzen duatloietan eta triatloietan, baina karatearekin hasi nintzenean alde batera laga nuen. Gerriko beltza eta irakasle titulua atera nituen eta klaseak ematen hasi nintzen. Nahiko erreta nabari nuen nire burua, ordea, eta aurten berriz ere korrika eta bizikletan hastea erabaki dut. Orain, Donostiako triatloia korritzeko gogoa daukat.

**Hiru lasterketa hain ezberdin burutzean muskuluek igarriko dute, ezta?** -Bai, korrika egiten, igerian edo bizikletan muskulu erabat ezberdinak erabiitzen ditu gorputzak. Horregatik, kirol batetik bestera pasatzean muskuluek igarri egiten dute. Irtenbide bakarra entrenatzea da, hau da, gorputza aldaketa horietara ohitzea, korrika egin ostean, bizikleta hartzea eta alderantziz.

**- Non sentitzen zara erosoago korrika ala bizikleta gainean?** -Korrika egitea zailagoa da eta bizikleta gainean erosoago sentitzen naiz. Hala ere, forman egonez gero, korrika egitea polita da.

**- Zein izan da parte hartu duzun probarik gogorrena?** -Behin, Donibane-Loizuneko Iron-Man-a prestatzen hasi nintzen (160 km. bizikletan, 4 km igerian eta 30 km. korrika), baina betidanik izan ditudan belauneko arazo batzuk direla-eta, ezin izan nuen parte hartu. Gainontzean, Zarautzeko triatloia da egin dudan gogorrena.

**- Edozeinek egin al dezake Duatloi bat, ala superatletentzako proba bat da?** -Behar bezala entrenatuz gero, edozeinek har dezake parte duatloi batean.

**-Dieta berezirik egiten al duzu?** Ez, normal jaten dut. Hala ere begetarianoa naiz duela 16 urte ingurutik. Horrekin frogatu dut, ez dagoela okela jan beharrik erresistentzia handiko lasterketak bukatzeko.

**- Bukatu al daiteke horrelako lasterketa gogor bat sufritu gabe?** Posible da, baina normalena sufritu beharra izaten da, bakoitzaren izaeraren araberakoa izaten da hori. Ni adibidez, hasieratik topera irtetzen naiz, nire izaera horrelakoa baita, baina beste batzuk lasaiago hartzen dute.

**- Non sufritzen duzu gehiago, duatloian ala lanean?** -Korrika egiten gehiago sufritzen da, baina norberak bilatutako denez gustura sufritzen dut.

## • Helduenlzako igeriketa ikastaroak Olakaga Kiroldegian

Elgoibarko **Udal Kirol** Patronatuak helduentzako igeriketa ikastaroa antolatu du. Interesa dutenek Kiroldegian eman dezakete izena, eta horretarako azken eguna apirilaren 26a izango da. Ikastaroak 14 saiotakoak izango dira eta ordutegi hauek izango dituzte: hasiera ikastaroa, asteartetan eta ostegunetan 16:00etatik 16:45ra. Hobekuntza ikastaroa, asteartetan eta ostegunetan 19:45etik 20:30era.

## • Tddoturisten irteera apirilaren illan

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 16an, izango da 15. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirrindulariek. Ibilbide luzea: Elgoibar, Eibar, Ermua, Areitio, Zaldibar, Berriz, Durango, Amorebieta, Autzagane, Gernika, Kortezubi, Ereño, Lekeitio, Ondarِu, Mutriku, Deba, Elgoibar. Guztira 108 km. dira. Ibilbide motza, berriz, honakoa izango da: Elgoibar, Eibar, Ermua, Areitio, Zaldibar, Berriz, Durango, Abadifio, Elorrio, Kanpazar, Arrasate, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 73 km. Nahi duen edonork har dezake parte.

## • Ana Etxaniz bigarren eta Nuria Revuelta 4. sailkatu dira Gipuzkoako Atletismo Txapelloetan

Aire libreko Gipuzkoako Atletismo Txapelketaren 2. fasea jokatu zen apirilaren 8an, Berazubin. Ana Etxaniz eta Nuria Revuelta elgoibartarrek 1.000 eta 300 metrotako lasterketetan hartu zuten parte, hurrenez hurren. Nuriak bere seriea irabazi zuen **46'35"** denborarekin. Emaitza horti esker sailkapen orokorrean Gipuzkoako laugarren postua eskuratu du. Anak, berriz, 1.000 metrotan bigarren egin zuen 3'11" denborarekin, sailkapen orokorrean ere bigarren postuan amaitu du. Besta1de, Atletico San Sebastian taldeak irabazi zuen Taldekako Gipuzkoako Txapelketa, bi elgoibartarren taldeak, hain zuzen ere. Anaren eta Nuriaren ernaitzek asko lagundu zuten lorpen honetan. Ondorioz, Euskadiko Txapelketan hartuko dute parte datorren maiatzaren I3an, Gasteizen.

# ibn neska-m0 1iren 7. Haur Krosean

## Partaide guztiek jaso zuten domina eta irabazleek trofeoa




Elgoibarko kaleak korrikalari gazte txoz bete ziren pasa den domekan, hilaren 9an. Izan ere, 6 urtetik 16 urtera bitarteko 412 korrikalari gaztetxok hartu zuten parte Ikastolak urtero antolatzen duen Haur Krosean. Aurtengoa 7. aldia izan da. Adinaren arabera 4 ibilbide zeuden eta guztira 14 lasterketetan neurtu zituzten indarrak neska-mufflek. Partaide guztiek jaso zuten domina eta adin bakoitzeko lehenengo neskak eta lehenengo mutilak trofeoa jaso zuten garaipenaren oroigarri modura. Ondoko taulan irabazleen izenak agertzen dira.

| JAIOTURTEA | KORRIKALARIA | DENBORA |
|---|---|---|
| 93 ................................ | Ane Urain | l'21" |
| 93 ................................ | Joseba Lariz | 1'28" |
| 92 ................................ | Oihana Rodriguez ... | l' 17" |
| 92 ................................ | Borja Diez | l'10" |
| 91 ................................ | Itsaso Egaila | 2'29" |
| 91 ................................ | Aitor Arrese | 2'11" |
| 90 ................................ | Maialen Salaberria | 2'27" |
| 90 ................................ | Unai Cabo | 2'11" |
| 89 ................................ | Zitoritz Urain | 3'58" |
| 89 ................................ | Andoni Gomez | 3'45" |
| 88 ................................ | Lara Urain | 3'42" |
| 88 ................................ | Aitor Arrillaga | 3'17" |
| 87 ................................ | Nerea Zubiaurre | 5'32" |
| 87 ................................ | Andoni Gabilondo | 5'03" |
| 86 ................................ | Ion Perez-Cortes | 5'27" |
| 86 ................................ | Olatz Urbizu | 6'15" |
| 84 ................................ | Julen Badiola Urain | 5'29" |
| 84 ................................ | Ainara Ladron | 6'14" |

## Mintxeta Atletismo Taldeko Alazne Eskuderok eta Erika Tenak emaitza onak lortu dituzte Zumarragan

Mintxeta-Egondo Atletismo Taldeko Alazne Eskudero eta Erika Tena atletek, Gipuzkoako Atletismo Txapelketan hartu zuten parte pasa den apirilaren 8an Zumarragan. Alaznek 60 metroko lasterketan hartu zuen parte eta bigarren postua eskuratu zuen 8'11" denborarekin. Erikak, berriz, 4. postuan amaitu zuen pisu jaurtiketan. 8 metro eta 4 zm-tara bota zuen pilota Erikak.



## AITZAK

### Futbola

Haundi 0- Lemona 1 (3. maila)
Elgoibar 2- Olarizu 2 **(Jult. E.L.)**
Pedrusko 2- Ilintza 2 (1. erreg.)
Urola 2- Elgoibar 1 (1. erreg.)
Urniela 3- Elgoibar 1 (2. kad.)
Hondarribia 0 - Elgoibar **4** (Neskak)

### Eskubaloia

Pagoaga Elg. 23 - Zuazo 16 (Kad. nesk.)
Unceta Elg. 22 - Zuazo 16 (Jub. nesk.)
Hernani 113 - LM,S.Elg, 22 (Senior nesk.)
Luk Inter.128 -1.11.H. Elg, 35 (Senior mul.)

### Eskubaloia

Zur Ta Lur 10 - Extr. Leizaran 2 (1. maila)
Zur Ta Lur **6-** Moulinex 1 **(Autonom.)**

### Saskibaloia

Elgoibar S.T. 53 - Alde Zaharra **74**

### Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalari **erregularrena 99/00**

| JOKALARIA ........................ | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Aranberri .......................... | 33 |
| 2- Loren .............................. | 29 |
| 3- Zulaika ............................ | 28 |
| 4- Castro ............................ | 27 |
| 5- Gastillo .......................... | 26 |
| 6- lbarluzea .......................... | 26 |
| 7- Alberdi ............................ | 23 |
| 8- Polo ................................ | 21 |
| 9- Baque ............................ | 20 |
| **10-** 1. Leonardo ..................... | 17 |
| 11- Bravo ............................ | 16 |
| 12- Diaz .............................. | 15 |
| 13- Caro .............................. | 13 |
| 14- Mikei ............................ | 12 |
| 15- Ruiz ........ ,........ .. . .. | 8 |
| 16- Guarrotxena ..................... | 6 |
| 17- Manolo Ramos .................. | 4 |
| 18- Alkorta ............................ | 4 |
| 19-Txasio .............................. | 4 |
| 20-Edu ................................ | 8 |
| 21- Fernandez ........................ | 2 |

## " GE?inii

### Eskubaloia, Kiroldeqian

**Ostirala 14**
**21:00** IMH Elg. - Ormaiztei **(Jurdor** mut.)
**larunbata 15**
**16:00** Tecnomeca Elg. - Escdapics(Kad. **mut)**
**17:30** Pneurnax Elg. - **Escotapios (Jub. mut)**
**19:00** IMH Elg, - Amenabar **(Senior mul.)**
**Igandea 16**
**10:00** Pagoaga Elg. -Alaftamendi(Kad. **nesk.}**
**11:15** Unceta Elg. - Aloñamedi **(Jub. nesk.)**
**12:30** 111AS Elg. - Pulpo **(Senior nesk.)**

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, **15**
**17:00 Pedrusko -** Elgoibar (1. erreg.)
**igandea, 16**
**11:00** Elgoibar- Pasajes (Oho. inf.)
**12:30** Elgoibar - Tolosa (2. kad.)
**16:30** Elgoibar Intxaurdi **(Neskak}**



# "Soberan daukana kendu eta eskulturerm arima hliatzen saiatzen naiz"

*Arturo Andrade 43 urteko eskultore profesionala da. Duela 20 urte erabaki zuen artetik bizitzea eta ez da damutzen hartu zuen erabakiaz, ofizioa baino bokazioa baita berea. Duela gutxi Hondarribiko arte galeria batek Arturoren bi eskultura aukeratu zituen Salamancako Nazioarteko Ferian erakusteko. Hori gutxi balitz, biak saldu zituen, bat Unamunoren iloba bati, gainera. Feria aitzakitzat hartuz, berarekin hitz egin dugu bere lanaz eta arteaz orokorrean.*

Arturo Andrade

Salamancako IV, Nazioarteko Arte Ferian erakutsi zenituen zure eskultura batzuk. Nolako esperientzia izan da?

Feria batean izan naizen lehen aldia izan da. Orain arte kultur etxe edo arte aretoetan bakanik erakutsi ditut eskulturak. Esperientzia polita eta interesaarria izan da. Euskal Herriko 10 artisten lanak aurkeztu zituen gure galeristak Salarnanean, tartean Nestor Basterretxea bezalako artista ezagunen lanak zeuden.

1 Zer garrantzi dauka horrelako feria batean zure lanak aurkezteak?

Ez dauka Madrileko "Areo¯ feriak daukan prestigiorik, baina ari da indarra hartzen. Feriak iraun duen astebetean jende asko pasa da bertatik. Artistentzat hori da garrantzitsuena, behin eskulturak tailenetik atera ondoren jendeak ikusteko izan daitezen. Gainera, beti dago aukera galeria garrantzitsuren batek zure lana ikusteko. Bestalde, mundu osoko artelanak zeuden ikusgai eta besteen lana ikusiz eta norberarenarekin konparatuz asko ikasten da.

**"Euskadin egiten den artea beste lekuetan egiten denaren ezberdina da. Inguruak eragin zuzena dauka artistarengan".**

Ⅲ Noiz erabaki zenuen eskultore profesional izatea? Bizi al daiteke artetik?

20 urte daramatzat eskultore profesional moduan. Urte onak eta ez hain onak izan dira tartean, baina enkarguz egindako lanekin eta prezioak piska bat sakrifikatuz aurrera **ateratzea** lortu dut. Hala ere, dirua alde batera lagata, egiten dudana biziki gogoko dut. Goizean jaikitzen naizenean lanera joateko irrikitan egoten naiz. Eskultore izan aurretik ajustadore lanean ibili nintzen. Garai hartan denbora ahalik eta azkarren pasatzea nahi izaten nuen, lana bukatu eta kalera irtetzeko. Orain, berriz, denbora falta zait buruan ditudan ideiak aurrera ateratzeko.

1 Zure estiloa berezia edo originala da. Berez irtetzen zaizu edo zuk bilatu duzu?

Urteak pasa ahala estiloa lantzen joan naiz. Hala ere, beti mantendu dut konstantzia bat, orain egiten ditudan eskulturek hasieran egiten nituenen zerbait daukate. Nire lan egiteko era erraza da, pieza handi bat hartu, eta polik-poliki soberan daukana kentzen diot, adierazi nahi dudan detailea lortu arte. Eskulturaren arima bilatzen saiatzen naiz, zerbait aurkitu nahiko banu moduan, daukan esentzia-edo.

Arte euskalduna existitzen al da?

Bai, Euskadin egiten den artea beste lekuetan egiten denaren ezberdina da. Inguruak eragin zuzena dauka artistarengan. Euskadira etorri nintzenetik. formak beste modu batera ikusten ditut. Bestalde, fundizioetako burdinak inspirazioa izan dira niretzat.

Nola jartzen zaio prezioa arte lan bati?

Arte munduan urte asko daramatzazunean ikasten da prezioak jartzen. Azken finean erraza da; prezio altuegia jarriz tzero, ez da eskulturarik saltzen, beraz, arteaz bizi nahi izanez gero, merkatura egokitu behar dira prezioak.

Egia al da izenak ere asko saltzen duela?

Bai, hala da, baina izena izatera ailegatzea ere zaila da. Askoren izena, adibidez, **hil** eta gero egiten da ezagun.

1 Kalean jartzen diren artelanek apaintzeaz gain, ba al dute beste funtziorik? Oteizak hezitzeko ere balio dutela dio?

Artelan batek hezi, erakutsi eta gainera apaintzeko balio badu, askoz hobe. Artistak beti bilatzen du zerbait komunikatzea. Ez dakit nire eskulturek zerbait esango dioten jendeari, baina niri behintzat bai. Hala ere, eskultura bat norbaiti ederra iruditzen bazaio, hotTekin nahikoa da niretzat.

Ezagutzen dituzun hirien artetik, zein da ederrena?

Florentzia, Erroma, New York... bisitatu ditut eta oso politak iruditzen zaizkit, baina ez dago Paris bezalakorik. Bazter guztietan artea usaindu daiteke. ParistatTek beraien ondare historikoa oso ondo zaintzen jakin dute, artea bizi baitute.

## 14 ostirala

22:00 KONTZERTUA
`Eguzkian' musika taldea
Oraiko tabernan

22:00 KONTZERTUA
"Sin" (ennuarrak) - "Serior No" (donostiarrak)
Gaztetxean, Sarrera: 500 pezeta
Antolatzailea: Gazte Asanblada

22:15 ZINEA
"Seeuestrando a la señorita Tingle"

22:30 KONTZERTUA TOLETXEN
Biolontxelo eta Piano kontzertua
Akordeoi orkestra
Antolatzaileak: Inazio Bereziartua M.E eta
Elgoiharko Izarra K.E.

## 15 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"Seeuestrando a la señorita Tingle"

## 18 igandea

9:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA
Txankakua zubitik
Antolatzailea: Elgoibarko L.T.

16:30 ZINEA
"Charlie & Louise" (Euskaraz)

19:30-22:15 ZINEA
"Secuestrando a la señorita Tingle"

21:00 KONTZERTUA
Taldea: "Letz Zep"
Gaztetxean

## 17 astelehena

22:15 ZINEA
"Secuestrando a la señorita Tingle"

## 20 osteguna

19:30-22:15 ZINEA
"Toy Story 2"

2000-IV-14

## 21 ostirala

19:00 ZINEA GAZTETXEAN
"Viva Zapata"

19:30 ZINEA
"Toy Story 2"

22:15 ZINEA
"El talento de Mr. Ripley"

## 22 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"El talento de Mr.

## 23 igandea

16:30 ZINEA
"Toy Story 2"

19:30-22:15 ZINEA
talento de Mr. Ripley"

## 24 astelehena

22:15 ZINEA
"El talento de Mr. Ripley"

## 26 asteazkena

22:15 ZINE KLUBA
"The year of the horse"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba
Laguntzailea: Gazte Asanblada

## 27 osteguna

22:15 ZINEA
"The year of the horse"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba
Laguntzailea: Gazte Asanblada

## 28 ostirala

22:15 ZINEA
"American Beauty"

# TOLETXE TABERNA

Pedro Muguruza 8, behea
Tei. 943 74 19 48

apinlak 14,
,stira la

# 22:30

**BIOLONTXELO eta PIANO kontzertua**

Biolontxdoo: Naroa Garzia
Pionocc Maria Agirre

**AKORDE01 ORKESTRA**

Zuzendaria: Maite Janeiro

*onanakh hau*
*BEREZIARTL-1,11C'SIK-IESKOLAk*
*prestalu eta antalaiu*

**ELGOIBARKO IZARRA K**
**Elkarteak** eta **TOLET**
**zuzendaritzak**. eskerrik zintzoenak
nahi dizkizue bai inaugurazio egune
baita hurrengo egunetan ere TOLET
hurreratu zareten herritar gu
Bestalde, gure barkamena eskatu
dizuegu zerbitzua ez bada egokiena
Badakigu gauza asko soltean dauzk
oraindik baina ahalegin guztiak e
ditugu ahal bezain pronto dena
lagatzeko. Esker mila berriz ere et
duzuen arte.

U nlIBMILit

**FARMAZIAK**

| | Eg unei | Gauez |
|---|---|---|
| **15** | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| **16** | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| **17** | Fernandez | Fernandez |
| **18** | Yudego | Yudego |
| **19** | Zabaleta | Zabaleta |
| **20** | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| **21** | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| **22** | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| **23** | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| **24** | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| **25** | Fernandez | Fernandez |
| **26** | Yudego | Yudego |
| **27** | Zabaleta | Zabaleta |
| **28** | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |

**ESCALA:** Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 943 75 16 38
**J. IGNACIO FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4,
Garagarza.Tel: 943 75 61 42
**ZABALETA:** Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

**16 igandea Zabaleta**
**20 osteguna Idarraga**
**21 ostirala Dotta Mercedes**
**23 igandea Eizagirre**
**24 astelehena Fotero**

## • Biolontxelo eta piano kontzertua eta akordeoi orkestra gaur, hilak 14, TOLETXEn

Gaur, barixakua, hilak 14, Inazio Bereziartua Nusika Eskolak prestatu eta antolatuta bi kontzertu izango dira TOLETXEn. Gaua hasteko, Naroa Garziak eta Marta Agirrek biolontxelo eta piano kontzertua eskainiko dute. *Bach Schuman, Elgar* eta beste konpositore batzuen 7 pieza eskainiko dituzte. Ondoren, Inazio Bereziartua Musika Eskolako 8 ikaslek osatutako akordeoi orkestrak 4 obra eskainiko ditu, tartean balsak eta tangoak izango dira. Maite Janeiro da orkestrako zuzendaria. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da.

## • Gaztetxeko kontzertuak astehuruan




Gazte Asanbladak hainbat kontzertu antolatu ditu datorren astebumrako. Hasteko, gaur, hilak 14, Eibar-Gazteiz autopistaren aurkako ekintzen barruan bi kontzertu entzuteko aukera izango da Gaztetxean gaueko 22:00etatik aurrera. Lehenik, "Sin" talde ermuarrak punkmek melodiko doinuak eskainiko ditu. Ondoren, ."Señor No" taldearen txanda izango da. Donostiako Buenavista auzoko taldea da eta "La Perrer" edo "Nuevo Catecismo Catolico" taldeen eskolako musika mota egiten dute. Sarrerak 500 pta. balio du. Domekan, hilaren 16an, berriz, "Letz Zep" Londresko taldeak eskainiko du kontzertua gaueko 21:00etan. Ingeles hauek "Led Zeppe- talde mitikoaren bertsioak joko dituzte.

111 MI • • • • IM la • ■ 11 • 11 111 1111 • • 11 al • • M

## "Secuestrando a la señorita Tmgle"

Kevin Williamson, "Scream" filmeetako gidoilaria da komedia beltz honetako zuzendaria. Tingle anderefioa institutuko historia irakasle gorrotogarria da, ikasleak lotsaeraztea gogoko duten horietakoa. Leigh Ann ikasleak unibertsitatera joatea nahi badu derrigorrez gainditu behar du historia, haina Tingle anderеñoa oztopo gaindiezina izango da, eta ez du irakasgaia gaindituko. Bururatuko zaion irtenbide bakarra irakaslea bere etxean bahitzea izango da.

**Zuzendaria: Kevin. Williamson.**
**Antzezleak: Helen Mirren,**
**Katie Holmes, Jeffrey Tambor.**

• ZEIN ■ IZ•Z 111 ■ 111 ••• • 11 ••• ■ 111 • • • 111 ■

## ASTE SAN MEZAI eta ELIZKIZUN

| | Hilak **16** Erramu Igandea | Hilak **17** Astelehena | Hilak **18** Asteartea | Hilak **19** Asteazkena | Hilak **20** Ostegun Santua | Hilak **21** Ostiral Santua | Hilak 22 Larunbata | Hilak **23** Pazko Igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **PARROKIAN** | 11:00 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza 12:30 Meza | 16:30/20:00 Aitortzak (Euskaraz) | 16:30/20:00 Aitortzak (Gaztelaniaz) | | 10:00-12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza | 17:30 Jesusen Heriotzaren ospakizuna 20:00 Gurutz Bidea | 21:00 Pazko Bijilia | 11:00 Meza nagusia eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak |
| **SANTA KLARAN** | 9:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza | | | | 17:30 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurreko otoitza | 9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz Bidea 17:00 Jesusen Heriotzaren ospakizuna | 22:00 Pazko Bijilia | 9:30 Meza |
| **MADALAN** | 8:30/12:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza | 20:00 Aitortzak (Euskaraz) | 20:00 Aitortzak (Gaztelaniaz) | | 19:30 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza | 10:00 Gurutz Bidea 17:30 Jesusen Heriotzaren ospakizuna | 20:30 Pazko Bijilia | 8:30/12:30 Mezak |
| **SAN LORENTZON** | | | | 20:00 Aitortzak 21:00 Aitortzak (San Antolin) | 18:00 Azken afariko ospakizuna | 19:00 Jesusen Heriotzaren ospakizuna | | |

### • nnea Euskaraz 2000 egitasmoa

Zinea Euskaraz egitasmoaren barruan, `Charlie & Louise' filmaren emanaldia izango da apirilaren 16an, domekan, arratsaldeko 16:30ean Herriko Antzokiau. 'Chariie eta Louise' 10 urtetako bizkiak dira. Txikitatik, gurasoak banaru eta bat amarekin Hanburgon eta bestea aitarekin Berlinen bizi izan dira. Ez dute elkar inoiz ikusi. Egun batean Eskozian udaleku batean topo egingo dute kasualitatez. Sustoa pasa ondoren, plan irudimentsu bat jarriko dute martxan.

### • EH-ko kide hatek egaera politikoa aztertuko du apirilaren 18an. Kultur Etxean

EH alderdiaren eskutik, mahai nazionaleko kide batek hitzaldia eskainiko du apirilaren 18an, asteartean. Hitzaldia, arratsaldeko 19:30ean hasiko da Kultur Etxean. Azken hilabete hauetan Euskal Herriko egoera politikoak izan dituen aldaketak izango dira hizpide: ETAren su etenaren amaiera, Lizarra-Garaziko edukien irakurketa diferenteak, Partidu Popularrak hauteskunde orokorrak irabazi izana etab. Bukaeran nahi beste galdera egiteko aukera izango dute hitzaldira hurbiltzen direnek.

El 111 IN

ONGARRI zine kluba



### "The Year of the horse"

Neil Young rock-folk kantari amerikar mitikoa eta Jim Jarmush zinegilea lagun minak dira. Adiskidetasun horri esker sortu zen musikagilearen jira bat grabatzeko ideia, hain zuzen ere, 96an Europan eta Estatu Batuetan zehar egindakoa. Bertan, Neil Youngen bizimodua islatzen da: errepideko bizimodua, kontzertuetakoa, kamerinoetan egi ndako elkarrizketak etab. Bi hitzetan, mito hau ezagutzeko aukera aparta eskaintzen digu musikaren inguruko dokurnental ezin hobe honek.

ZINEA

II • 1E la ni• E1 • al • IZ ZE • 111 111 111l • ZI

# HOBETUZ.ek c/0100 SUBENTZIONATUTAKO IKASTARO ESKA1NTZA EUSKAL HERRIKO KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMAREN BAITAN

Eusko Autonomi Erkidegoa, beste batzuen artean, honako erronkei aurre egin beharrean dago:

- Produkzio-sektoreen beharrei erantzun egokia ematea. Langileen gaitasun maila indartzea eta, azken finean, ongizate eta konpetibitate maila altua daukan Herri bat eraikitzea Europari eta nazioarteari begira.

- Euskadiko Kualifikazio Profesionalen Sistemak ondorengo eginkizunen gaineko ardura dauka:

- Gure enpresek Europako eta Europatik kanpoko herrialdeekin konpetitu ahal izateko behar dituzten profesionalek nolakoak izan behar duten definitzea.

- Informazioa gizarteratzea: batetik, profesionaltasun-maila horretara iristeko bidea zen den erakustea, eta, bestetik, hori lortzeko laguntza eskaintzea, bai prestakuntza-jardueren bidez zein lan-esperientziaren bidez.

- Lortutakoa egiaztatzea eta erregistratzea, pertsona bakoitza bere karrera profesionala gauzatzen joan dadin.

Euskadiko kualifikazio profesionalen sistemaren lan-ardatz nagusia pertsonen gaitasun profesionala ERREKONOZITZEA eta EGIAZTATZEA da, hori lortzeko jarraitu duten bidea kontuan izan gabe.

Lanean diharduten edo jardun duten pertsonei, euren bizitzen zehar pilatzen joan diren gaitasuna errekonozitzen zaie, euren lan-esperientzia, hain zuzen ere. Era berean, lanik ez daukaten pertsonei errekonozitzen zaien gaitasuna honako hau da: gai jakin baten inguruko prestakuntza-jarduerak burutu ondoren lortu duten emaitza edo gaitasuna.

| KURTSOAREN IZENA | ORDU KOPURUA | HASIERA | AMAIERA | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|---|
| Hidraulika | 40 | 00/05/08 | 00/06/02 | 17:00-19:00 |
| ISO 9000 | 40 | 00/05/08 | 00/06/02 | 18:00-20:00 |
| Pneumatika eta elektropneumatika | 45 | 00/05/08 | 00/06/06 | 19:00-21:00 |
| Multzo mekanikoen diseinua | 45 | 00/05/15 | 00/06/14 | 17:00-19:00 |
| Bistak eta krokisak | 40 | 00/05/15 | 00/06/09 | 19:00-21:00 |
| Automata programagarriak | 50 | 00/05/29 | 00/06/30 | 17:00-19:00 |
| CNC tornuaren programazioa | 40 | 00/05/29 | 00/06/19 | 17:00-19:00 |
| Multzo mekanikoen interpretazioa | 45 | 00/05/31 | 00/06/30 | 19:00-21:00 |
| CAD | 45 | 00/06/05 | 00/07/05 | 15:00-17:00 |
| Kalitate kontrola | 40 | 00/06/05 | 00/06/30 | 18:00-20:00 |
| CNC tornuan programatzea eta gauzatzea | 40 | 00/06/26 | 00/07/21 | 15:00-17:00 |
| CNC tornuan programatzea eta gauzatzea | 40 | 00/06/26 | 00/07/21 | 17:00-19:00 |
| Planuen interpretazioa | 40 | 00/09/04 | 00/09/29 | 17:00-19:00 |
| CNC tornuko mekanizazioa | 45 | 00/09/04 | 00/09/22 | 18:00-21:00 |
| Kalitate kontrola | 40 | 00/09/11 | 00/10/06 | 18:00-20:00 |
| Elektrizitatea | 45 | 00/09/25 | 00/10/26 | 17:00-19:00 |
| Automata programagarriak | 50 | 00/10/02 | 00/11/08 | 17:00-19:00 |
| Ilidraulika | 40 | 00/10/02 | 00/10/31 | 17:00-19:00 |
| Multzo mekanikoen interpretazioa | 45 | 00/10/02 | 00/11/06 | 17:00-19:00 |
| Elektrohidraulika | 30 | 00/11/06 | 00/11/24 | 19;00-21:00 |
| ISO 9000 | 40 | 00/11/06 | 00/12/01 | 18:00-20:00 |
| Pneumatika eta elektropneumatika | 45 | 00/11/06 | 00/12/05 | 17:00-19:00 |
| CNC fresatzeko makinaren programazioa | 50 | 00/11/06 | 00/12/13 | 17:00-19:00 |
| CNC fresatzeko makinaren programazioa | 50 | 00/11/06 | 00/12/13 | 19:00-21:00 |
| Makinako elementuak | 60 | 00/11/07 | 00/12/21 | 17:00-19:00 |
| Multzo mekanikoen diseinua | 45 | 00/11/13 | 00/12/18 | 19:00-21:00 |
| Deformazio bidezko fabrikazioa | 60 | 00/11/20 | 00/12/21 | 15:00-18:00 |
| Deformazio bidezko fabrikazioa | 60 | 00/11/20 | 00/12/21 | 18:00-21:00 |

MAKINA ERREM1NTAREN INSTITUTUA

San Roke, 1 . ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Tel. 943 74 41 32 . Faxa: 943 74 41 53

E-posta: imh@fmh.es - http://www.tmh.es

Informazioa: Nora Ramon

kow H OBETUZ

Lonwke. 'rest.A.elo Fustai 'oxlanaa

EUROPAKO GIZARTE FONDOA

Europako Ekonomi Elkartea

# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
s* 943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
n* 943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
"u 943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
Tr 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
z" 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
"w 943 74 03 96

## 5©LAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
1T 943 74 30 94

## ITURGINTZA.

**ANGEL**
Santa Ana, 5
s' 943 74 17 61
n' 689 04 92 06

**JAVI**
Erretxindi, 1
'Lr 608 77 29 32

**JUAN CARLOS S.L.**
Urasandi, 59-61
Tr 943 74 34 87

**ONGI**
Urasandi, 8
z° 943 74 10 82

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
ïcr 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
"a 943 75 50 62
w 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
IT 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
"E- 943 74 07 89
z" 608 14 30 40

## PROIEKTUGI

**JESUS Mª GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
'zr 943 74 45 99

## PINTURAK

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
11- 943 74 04 40
13- 607 74 04 40

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
'zr 943 74 12 38

**BETI ARGI**
Errosario, 6
943 74 16 44

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
17 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
w 943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
Tr 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
943 74 29 87
Tr 689 58 47 23

**IPINTZA**
Trenbide, 25
630 95 97 58-7
Faxa: 943 74 45 97